



2006-10-04

## **GETXOKO BIGARREN ESKUKO LIBURUEN AZOKAK 6.000 EURO BAINA gehiago BILDU DITU**

Larunbatean amaitu zen aurten lehenengo aldiz egin den Getxoko Bigarren eskuko Liburu Azoka. Ekimenak arrakasta handia lortu eta bisitari ugari bildu ditu. Horrela, pasa den ostegunean hasi zen jarduera honetan 9.500 bat liburu saldu dira, salneurri sinbolikoetan. Bildutako dirua Tindoufeko (Sahara) proiektu solidario bati zuzendua egongo da. Salgai izan diren liburuak partikularrek liburutegiei emandakoak dira soilik. Hauek guztiek prezio sinbolikoek izan dituzte, bildutako dirua proiektu solidario bati zuzenduko baita.

Oraingo honetan, bilketa (6.000 euro baino gehiago) Tindoufeko errefuxiatuentzako kanpamentuetako Lehenengo Hezkuntzako bi eskola berreraikitzeke erabiliko da. Saharako 3.000 hurrek baino gehiagok ikasten dute ikastetxe hauetan.

Salmentei dagokienez, arrakastatsuak izan dira. Horrela, aurtengo prestatutako liburu kopuruaren %90a saldu da. Aurten gai anitzeko liburuak saldu dira, bai eta bilduma osoak eta entziklopediak ere.